


Lagun armatua



Lagun armatua

Jatorrizko izenburua: *Der bewaffnete Freund*

Egilea: Raul Zelik

Itzultzailea: Edorta Matauko

Argitaratze urtea: 2009

Argitaletxea: Txalaparta

MIKEL GARMENDIA

Raul Zelik idazle alemaniarrek berak esana zigun: "Niretzat, liburu hau euskal gatazka Alemaniako irakurleei azaltzeko baliabide bat izan da, baina badut baita ere esperantza Euskal Herriko eta Espainiar Estatuko irakurleei ere zer pentsatua eman diezaiekeela."

Eleberriaren izenburuak badu, ez alferrik, begien bistako paralelismoa Joseba Sarrionaindiaren *Lagun izoztua*-rekin, zeina Zelik berak itzuli baitzuen alemanierara eta honelako erabatekotasunez aipatzen baitu hari buruz galdetuta: "Nire bizitzako eleberria da. Eta sinestezina egiten zait ez Espainian ez Europan argitaletxe bakar batek ere argitaratu nahi ez izana."

Lagun armatua-n adiskidetasun baten istorioa kontatzen zaigu. Gazte alemaniar batek berriro egingo du topo aspaldiko lagun euskaldun batekin, azken hogeita bost urtean sasia baitabil eta ETako buruzagi bilakatu baita. Gazte alemaniarrek, Alex-ek, penintsula osoan zehar eramango du bere autoan. Roadmovie bat, indarkeriaren legitimitateari (eta legitimitaterik ezari) buruzko eleberri politikoa eta, aldi berean, eraldaketa pertsonal baten istorioa dugu *Lagun armatua*. Alex-ek, bere baitaratua bizi baita, gauza abstraktu baten bidez, elkartasun politikoaren bidez, alegia, berreskuratuko du emozionalitatea. Hala, lagunaren hautuarekin ados ez egonik ere, haren jarrera, saiatu arren, ulertzen ez badu ere, are bere buruak diotenari aurka eginez ere, elkartasuna eskainiko dio eta harengandik mira sentitzera ere iritsiko da. Alde horretatik, eleberriak agerian uzten du gatazkaz aritzeko hizkera berri baten beharra, bipolaritatearen ziurtasunak gaintitu ahal izateko. Eleberriak erdi aldera halako erritmo-beherakada bat izan arren, berehala berreskuratzen du bizitasuna amaierara arte. Bestetik, interesgarria da oso, nik uste, non kokatzen den kontalaria: gazte alemaniarra da, euskal gatazka ondo ezagutzen duena baina bere ikuspegitik eta are bere bizi-egoera pertsonaletik ari zaiguna, sinesgarritasunaren mesedetan.

Euskarazko bertsioari dagokionez, irakurketa arina egiteko aukera ematen digun itzulpena dela esango nuke, ez beti berdina, itzultzeko modu berarizkoa esatea gehiegixko bada ere, bere marka propioa erakusten duena. Esan dezagun, labur beharrez eta adibide modura, oso efektu aproposa lortzen duela *baiezko mutua egin* eta gisako formula ez oso erabiliekin.